INDUSTRI TEKNOLOGIA II AZTERKETA: "Materialak"	
IZENA:	KURTSOA:

1. Ariketa [7 PUNTU]

Bloke bat ("m" masakoa) "A" eta "B" kableen (ezaugarri berdinak dutenak) bitartez helduta dago.

"B" kablearen ezaugarriak bertan daude: 25.000 N-eko tentsiopean dago kablea; bere diametroa 12 mm-koa da; jasaten duen luzamendua 0,8 mm-koa da eta esfortzu unitario ongarria 4200 kg/cm^2 –koa da.

Kalkulatu:
a) "B" kablearen esfortzu unitarioa [PUNTU 1]
b) "B" kablearen segurtasun-koefizientea [PUNTU 1]
c) Kableen elastikotasun-modulua eta materialaren dagokion Hooke-ren legea (ekuazioa idatzi) [PUNTU 1]
d) "m" masaren balioa [2 PUNTU]
e) "A" kablearen materiala berdina izanik, k=2 segurtasun-koefizientearekin lana egiteko, kablearen diametroa kalkulatu. [2 PUNTU]



2. Ariketa [3 PUNTU]

Azaldu labur (1-2 paragrafo kontzeptu bakoitzarentzat) ondoko kontzeptuak:

a) babes katodikoa
b) zementazioa
c) suberaketa (zer den eta zertarako)
d) altzairu erregogorra
e) zirrikitu disoluzio solidoak (zer den eta zein kasutan ematen den)
f) tenplaketa
[ATAL BAKOITZAK 0,5 PUNTU]